

Gazteen Klaketa sariaren OINARRIEN LABURPENA

Aurkezpena:

Kultura, Communication y Desarrollo KCD GGKEn giza garapen kulturarteko, bidezko eta jasangarria sustatzen dugu, komunikazioaren eta kulturaren bidez.

Hauek dira gure lan-alorrak:

- Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak, non elkarlanean dihardugun euren herrialdeetan garapen-proiektuak bultzatzen dituzten Hegoalde Globaleko erakundeekin, betiere herri horietako biztanleen mesedetan lan eginez.
- Euskadiko Gizarte Eraldaketarako Komunikazioa eta Hezkuntza, non jarduera ugari egiten ditugun herritar kritikoak eta arduratsuak hezteko, banaka zein taldean. Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia da gure zeharkako proiektua.

Deialdiaren xedea: Zinema, hezkuntza-sektorearen zerbitzura dagoen tresna pedagogikoa

Zinema tresna ahaltsua da, bere ezaugarriengatik oso egokia hezkuntza formalean zein ez-formalean baliatzeko. Ildo horretan, Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia ikastetxeen aliatu moduan proposatzen dugu. Filmak hezkuntza-curriculumean txertatzen dira, eta, zinema sozialak irakasleen eta, ikasleen eskura jartzen dituen edukien bidez, tokiko errealitate globalarekiko begirada zabal eta kritikoa ahalbidetzen duten jarrerak, trebetasunak eta gaitasunak sustatzen dira.

Garapen teknologikoak berekin dakarren paradigma berriaren aurrean, Zinema Ikusezinaren Jaialdiak hezkuntza- eta gizarte-sektoreari lagundu nahi dio, Ikaskuntzaren eta Ezagutzaren Teknologia erabiliz, prestakuntzari, pedagogiari eta partaidetzari garrantzi handiagoa ematen baitiete teknologia horiek.

Testuinguru horretan, KCD GGKEk proposamen berria dakar berari lotutako lanbide-heziketako eta batxilergoko ikastetxe guztientzat: telefono mugikorrez egindako film laburren lehiaketa, «**Gazteen Klaketa**».

Irakasleen laguntzaz, **Gazteen Klaketak** balio unibertsalak sustatu nahi ditu lanbide-heziketako eta batxilergoko ikasleen artean, euren ingurunearen eraldaketa sozialean esku har dezaten.

Deialdian parte hartzeko baldintzak

Baldintza hauek bete behar dituzte deialdi honetara aurkeztu diren ikastetxeek eta ikasleek:

1. Lanbide-heziketako eta batxilergoko ikastetxe hauek aurkez daitezke deialdi honetara: Kultura Communication y Desarrollo KCD GGKEekin eta Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiarekin lankidetzak-hitzarmenak dituztenek.
2. Saria edo aipamen berezia eskuratzeko, lanbide-heziketako eta batxilergoko institutu-tako ikasleek «Ikasleen Klaketa» lantegietan egindakoak izan behar dute ikus-entzunezkoek, edo, Kultura, Communication y Desarrollo KCD GGKEekin alde aurretik ados jarrita lantegi, horietan egindako lanen ezaugarriak izan behar dituzte.

3. KCD GGKErekin lankidetza-hitzarmenak dituzten ikastetxeetako ikasleen sorkuntza kolektiboaren emaitza behar dute izan sarira edo aipamenera aurkeztu diren film laburrek.
4. **Gehienez ere hiru minutu** iraun behar du film labur bakoitzak, kredituak ere barne direla.
5. Jaialdiaren edizio bakoitzari dagokion ikasturtean eginak izan behar dute film laburrek, eta edizio horretan bertan aurkeztuko dira.
6. Gazteen Klaketa parte hartzen duten ikastetxeek eta haietako ikasleek aurkeztu behar dizkiote lanak KCD GGKEri.
7. **Beranduenera ere, dagokion urteko maiatzaren 31n eman daiteke izena.**
8. Originalak eta argitaratu gabeak izan behar dute lanek. Antolatzaileek ez dute inongo erantzukizunik beren gain hartuko, lanek egile-eskubideak urratzen badituzte.
9. Euskaraz zein gaztelaniaz aurkez daitezke film laburrak.
10. Ikasle-talde bakoitzak film labur bat bakarrik aurkez dezake deialdi honetara.
11. Parte-hartzaileek lehiaketaren antolatzaileei lagatzen dizkiete aurkeztutako film laburren komunikazio publikoko, erreproduktzio eta banaketako eskubideak.
12. Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar baldintza horiek onartzea.

Film laburren ebaluazio-sistema

KCD GGKEk izendatutako batzorde bat arduratuko da oinarri hauetan ezarritako irizpideak betetzen dituzten film laburrak aukeratzeaz.

Antolatzaileek eskubidea dute lanak ez onartzeko, baldin eta edukiak ez badu gai sozialekin loturarik, kalitate-baldintza teknikoak betetzen ez badituzte eta zalantza sortzen badute, beste zeinahi arrazoi dela medio, KCD GGKEren irizpide etikoak betetzen ote dituzten.

Film laburren banaketa

Jasotzen diren film labur guztien artetik, gaiagatik eta kalitate teknikoagatik **nabarmentzen diren bost** hautatuko ditu KCD GGKEk izendatutako batzorde batek, eta KCD GGKErekin hitzarmena duten lanbide-heziketako eta batxilergoko ikastetxeetan banatuko ditu, bai eta Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiko zenbait zinema-aretoetan ere, edizio bakoitzean.

Hala ere, nabarmentzen diren bost film laburren artean aukeratu ez diren batzuk ikastetxeen udalerrietan proiektatu ahal izango dira, betiere film horiek behar adinako kalitatea badute eta udalerriek Zinemaldiaren egoitza ofiziala badute.

Epaimahaiaren Gazteen Klaketa saria eta ikasleen Gazteen Klaketa saria jasotzen dituzten film laburrak Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiaren edizio bakoitzeko amaierako galan emango dira.

Zinema Ikusezinaren Jaialdia amaitu ondoren, Klikatu Cine Invisible streaming-plataforman ikusgai jarraituko dute Gazteen Klaketako film laburrek.

Epaimahaiaren saria eta ikusleen aipamen berezia

1. Epaimahaiaren «Gazteen Klaketa saria»

KCD GGKErekin lotura duten zenbait lagunek osatuko dute epaimahaia.

Sari horretarako, KCD GGKErekin hitzarmena duten lanbide-heziketako eta batxilergoko ikastetxeetan banatutako bost film laburretako bat hautatuko du epaimahaiak.

Kategoria horretan baloraziorik onena jaso duen film laburra egin duen taldeak sari bat jasoko du, jaialdiko katuaren formarekin.

Gainera, 1.000,00 €-ko sari ekonomikoa emango zaio dagokion ikastetxeari, eta hark egoki deritzon moduan administratuko du.

Apelaezina izango da epaimahaiaren ebazpena, eta jaialdiaren amaierako galan ezagutaraziko da.

Epaimahaiak esleitu gabe utz dezake saria.

2. Ikusleen «Gazteen Klaketa saria»

Ikusleen saria emateko, Jaialdiaren edizio bakoitzean ikastetxeetako ikusleen bozketetan ateratzen den emaitzarik onena hartuko da aintzat.

Ez dira zenbatuko kontu faltsuen, jarraitzaileak zein botoak erosteko plataformen edo programatutako edonolako automatismoren bidez jasotako botoak, ezta Jaialdiaren balioekin bat ez datorren beste moduren baten bidez jasotakoak ere. Antolatzaileek baliogabetzat jo dezakete saria, baldin eta prozedura horietakoren bat erabili dela egiaztatzen bada.

Puntuazioa ezartzeko, film bakoitzak jasotzen dituen botoei dagokion batez besteko izar-kopurua hartuko da aintzat, eta, saria eskuratzeko, gutxienez 50 boto jaso behar ditu filmak. Berdinketa gertatuz gero, boto gehien lortu dituen film laburra izango da irabazlea.

Kategoria horretan baloraziorik onena jaso duen film laburra egin duen taldeak sari bat jasoko du, jaialdiko katuaren formarekin.

Gainera, 1.000,00 €-ko sari ekonomikoa emango zaio dagokion ikastetxeari, eta hark egoki deritzon moduan administratuko du.

Ezinbesteko baldintza

«Gazteen Klaketa saria» edo aipamen berezia lortzeko, inprimaki hau bete behar da:

<https://forms.gle/Cb7FhGdiaUFZa2RQ9>

Jabetza intelektual eta industrial, eta irudi-eskubideak

Parte-hartzaileek espresuki adierazten dute lehiaketara aurkezten dituzten bideoen jatorrizko egileak direla, bai eta haien irudi, gidoi eta musikarenak ere. Debekatuta dago hirugarren batzuek egindako lanak aurkeztea, hala argitaratu gabeak, nola argitaratuak, bai eta hirugarrenen batek haien gaineko eskubideren bat duenak ere. Debekatuta dago, halaber, hirugarren batzuen jabetza intelektualak edo industrialak osorik edo partez babesten duen filmik

aurkeztea. KCD GGKEk ez du inongo erantzukizunik izango, aurkezten diren lanek ez badituzte baldintza horiek betetzen.

Horrenbestez, hori guztia adierazi duen parte-hartzaileak baimena ematen dio KCD GGKEri jasotako lanak eta parte-hartzaileen izen-deiturak, irudia eta ahotsa erreproduzitu, erabil eta hedatu, osorik zein partez, eta egoki deritzon modura aldatu eta egokitu, lehiaketa honekin edo KCD GGKEekin lotura duten publizitate- eta/edo sustapen-jardura orotan, edozein hedabidetan, Internet ere barne dela. Jardura horiek ez diote ematen interesdunari inongo ordainik edo etekinik eskuratzeko eskubiderik, oinarri hauei jarraikiz irabazten duen saria jasotzekoa izan ezik.

Zehazki, hautatutako lanen gaineko eskubideak ditu(z)t(en) pertson(a/e)k zein erakunde(a/e)k espresuki ematen dio(te) honetarako baimena KCD GGKEri:

- Aurkeztutako lanak, argazkiak eta mugimenduan diren irudiak publikoaren aurreko erakustaldi irekietan erreproduzitu, ikuskatu eta proiektatzeko, jaialdian esku hartzen duten bitartean behar bezainbat aldiz, barne direla zinemaldia hasi aurreko sustapen-proiektzioetakoak eta hura amaitu orduko egingo direnetakoak.
- Zinemaldian ikusteko eta erakusteko behar diren euskarrietara lanak egokitze.
- Jatorrizkoaz bestelako hizkuntzetara lanak bikoizteko eta/edo azpigituluak jartzeko.
- Lanaren irudiak eta/edo zatiak erabiltzeko, zinemaldia sustatzeko ikus-entzunezkoan, prentsa-txostenean, informazio-karteletan eta/edo zinemaldiaren webgune ofizialean, haren sustapen-lanak egiteko.
- Lehiaketarako hautatutako lanetako materiala erabiltzeko, jaialdiari buruzko ikus-entzunezko materialak eta inprimatuak sustatzeko eta hedatzeko (katalogoa, sustapen-iragarkia, Interneteko webgunea, erakusketak).

Kultura, Communication y Desarrollo KCD GGKEren artxibategian gordeko dira lehiaketara aurkezten diren lanak. Hautatutako lanetakoren bat jaialditik landa erabiltzen badu KCD GGKEk kultura- edo hezkuntza-eginkizunetarako, lanaren zuzendariari berariazko baimena eskatu behar zaio, alde aurretik, eta kontratua sinatu harekin.

Iruzurrezko partaidetzak eta parte-hartzaileak deskalifikatzeko beste zenbait arrazoi

Anomaliaren bat detektatzen bada, edo ezein prozedura tekniko edo informatikoren bidez partaidetza legez kanpo aldaraziz edo oinarri hauek beste zeinahi erataraz urratuz parte-hartzailearen bat lehiaketaren jardura normala oztopatzen ari dela susmatzen, KCD GGKEk alde bakarrez erabaki dezake parte-hartzaile hori lehiaketatik kanpo uztea. Apelaezina da erabakia.

Beste era batera esanda, eskubidea du KCD GGKEk edozein parte-hartzaile deskalifikatzeko, baldin eta irregulartasun-susmorik edo -frogarik badago. Eskubide bera du deialdiaren beste baldintzaren bat ez dela bete atzematen badu.

Ez da onartuko eduki iraingarriak, gorrotozkoak, indarkeriazkoak edo jende arruntaren sentsibilitatea urratu dezakeenik, ez eta legearen kontrako jarduerarik bultzatzen duenik ere. Eskubidea du KCD GGKEk parte-hartzaile hauek lehiaketara ez onartzeko: irudi desagokiak dituzten lanak eta estetikarekin, etikarekin eta gustu onarekin bat ez datozenak egin dituztenak.

Erantzukizunik ez

KCD GGKEk ez du inolako erantzukizunik izango, etenik edo akatsik gertatzen bada lehiaketan parte hartzeko eskabidea egiteko prozesuan.

KCD GGKEk ez du inolako erantzukizunik izango, parte-hartzaileran bat lehiaketatik kanpo geratzen bada lehia atzeratu eta berez zegokion epetik kanpo egitea erabakiz gero.

Halaber, KCD GGKEk ez du inolako erantzukizunik izango, parte-hartzaileek ez badituzte lege-arauak eta oinarri hauek betetzen.

Bestalde, irabazleren batek sariari uko egiten badio, ez du eskubiderik izango inolako kalte-ordainik edo konpentsaziorik jasotzeko.

Baldintza orokorrak

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar oinarriak eta KCD GGKEren irizpideak erabat onartzea, haien interpretazioari eta sortzen diren gorabehera ororen konponbideari dagokienez.

Eskubidea du KCD GGKEk oinarri hauen ordeztzeko beste batzuk ezartzeko, behar izanez gero.

Oinarri hauek, onartzen diren egunetik eta eskaerak aurkezteko epearen barruan aurkezten diren eskariei aplikatuko zaizkie. Epea luzatzea erabaki dezake KCD GGKEk.

Espainiako legeria dute gidari oinarriek eta lehiaketak, eta Bilboko auzitegi eta parte-hartzaileek eta KCD GGKEk epaitegietara joko dute, baldin eta auziren bat sortzen bada lehiaketa dela eta. Bestalde, alderdiek berariaz egiten diote uko beste zeinahi foruri, legeak besteren bat agindu ezean.

Datuen babes eta konfidentzialtasuna

Datuen babesari gagozkiola, araudi hau aplikatu behar zaio ikastetxeek KCD GGKEekin duten loturari: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/769 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra); 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa (DPBEDBLO), Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa, eta gaiari dagokion EBko nazio bakoitzeko legeria.

Ematen den informazioa oinarri hauei jarraikiz tratatutako da —soil-soilik— eta, ahal den neurrian, datuen konfidentzialtasun zorrotza bermatuko da lehiaketako proiektuen hedapenari eta partaidetzari dagokienez. Lehiakideen partaidetza kudeatzeko eta, dagokionean, sariak esleitzeko tratatuko ditu KCD GGKEk lehiaketan esku hartzeko emandako datu pertsonalak. Lehiaketa amaitu eta hurrengo sei urteak igaro arte gordeko dira jasotako datu pertsonalak, sortzen diren lege-erantzukizunei aurre egiteko.

Noiznahi balia ditzake interesdunak datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu, aurkaratu eta eramateko eskubideak, bai eta tratamendua mugatzekoa ere, oinarri hauen hasieran ageri den helbidera zein info@kcd-ongd.org kontura idatziz, 94 602 46 68 telefono-zenbakira deituz edo helbide honetara joz: KULTURA, COMMUNICATION Y DESARROLLO «KCD», Beurko Zaharra 3, 38. pabiloia, 12. bulegoa, 48902 Barakaldo.

Behar izanez gero, dagokion nortasun-agiriaren kopia eskatuko da, datuen segurtasuna bermatzearren. Interesdunak noiznahi baliatu ahal izango ditu bere eskubideak, datu-babesaren alorrean eskuduna den agintaritzaren aurrean.

Lehiaketari buruzko informazio gehiago jasotzeko, telefonoz deitu dezakete interesdunek 94 602 46 68 zenbakira, edo mezu elektroniko bat idatzi produccion@kcd-ongd.org helbidera.

Komunikazioa

Dibulgazio-tresna hauek ditu jaialdiak:

Webgunea: <https://www.kcd-ongd.org/?lang=eu>

Twitter: @KCDONGD

Facebook: @CineInvisibleBilbao

Instagram: @kcdongd